

INAUTERIETAKO ABESTIAK

DIANA

Jeiki guztiok goiz kantaren soinua
eta ez galdu ondoren datorrena,
danbolin hotsak eta txaranga alaiak
egin dezaten gure gozamina,
Tolosar legez edari ta janaz
berdindu zagun ondoren barrera
ta zabaldu gure umore ona
jun dedin pozik honuntz datorrena.

Jeiki jeiki ohi hortatik
gaur Tolosarrak
Inauteriak beti
alaitzen gaitu guztiz!
Jeiki jeiki ohi hortatik
gaur tolosarrak
goazen festara danok goizetik.

BARATZAKO PIKUAK

Baratzako pikuak hiru txurten ditu,
baratzako pikuak hiru txurten ditu,
neska mutil zaliak, neska mutil zaliak
hankak arin ditu (3 aldiz)

Ai ene, nik ere nahi nuke
Ai ene zuk nahi bazenduke



Hankak arinak eta burua arinago,
hankak arinak eta burua arinago,
dantzan hobeto daki,
dantzan hobeto daki
artajorran baino (3 aldiz)

Ai ene, nik ere nahi nuke
Ai ene zuk nahi bazenduke.

PINTXANA

Pin pin Pintxanatarrak gu gera
Pin pin Pintxanatarrak beti.

Umore ona pasatzen degu
beti sagardotegian
gu bezelakorikan ez baita
Tolosako herrian.

Pin pin Pintxanatarrak gu gera
Pin pin Pintxanatarrak beti.

Neska gaztiak ez lotsik euki
guregana etortzeko,
Pintxanatarrak beti zai gaude
zuekin dantzatzeko.

Pin pin Pintxanatarrak gu gera
Pin pin Pintxanatarrak beti.

ARTILLERO

Artillero dale fuego
ezkontzen zaigula pastelero.
Eta zeñekin? Eta norekin?
Orpo zikinaren alabakin.

Orpo zikin gona luze
atzeko-aldeko erregidore.
Jotzen zioten tarrapatatan
zergatik neskatxa zatarra zan.

Orpo zikin gona luze
kaleko loiaren erregidore.
Deitzen zioten zarran zan zan zan,
zergatik neskatxa zatarra zan.

IRIYARENA

Ai Tolosako zezen suzkoa
izan zaitetz zorionekoa

Zezena dator arkupetatik
sua dariola adarretatik
zinbuluka ta zambuluka ta
jendearen atzetik.

GALTZAUNDIREN BERTSOAK

Neri deritzat Galtzaundi
apellidua det Goñi
Aldasoro izengoitiya
deitzen dirate neroni.
Hiltzerikan ez nuen
lenago pentsatzen
bañan oraingotikan
ez naiz eskapatzen
testamentu egitera
nua ni lenbailen
nere parientiak,
lasaitu ditezen.

Ta Galtzaundi ta Galtzaundi
apellidua det Goñi.
(Bi aldiz)



PELLO ZIRI ZIRI

Ikusi nuenian nik zure sudurra
iruditu zitzaidan moñoña
lukainka muturra.

Izaskungo menditik moñoña
zu ziñan erori.
Ai, ai, ziri-ziri Pello
gizonak ez dik ongi ematen
mozkortu ezkeru.

Ikusi nuenian zure belarria
iruditu zitzaidan moñoña
azaren orria.

Ai, ai, Pello ziri-ziri...

Ikusi nuenian nik zure begia
iruditu zitzaidan moñoña
anpolai gorria.

Ai, ai, Pello ziri-ziri...

Ikusi nuenian nik zure kokotxa
iruditu zitzaidan moñoña
gaztaña morkotsa.

PAQUITA LA VERGARESA

Txin-txin atea iriki zazu
txin-txin ezin det iriki
txin-txin alkatea dator
txin-txin alguazillakin

Ai, zu gau-txori
ez ekarri kontutxo hori
zoaz ta esan horixe
parrandako lagunei.

ISABELITA

Ai Tolosako neskatilak
txit alai gaude gaur mutilak
aurpegiz eder, soinez finak
zeratelako atseginak.

Zurekin nahi det gaur dantzatzia
zu maitatu ta ezkonduztia
gu biok beti, Iñauteria
izaten bazera nere emaztia.

MUGI MUGI (Baila negra)

Mugi mugi gorputz hori gogotsu
zure dantzak jartzen nau dantzan
berdin zait gorria izan
horia, zuria edo beltzarana

Dantzan hasitakoan
dantzan hasitakoan
nahiz ta gorriak ikusi
ez gara gorritzen
txantxo azpian

NESKATIL POXPOLIN

Oi, neskatil poxpolin, pirrin,
ezpain gorri, begi urdin,
polita ta krabelin,
zu ikusi ta bihotza
batzutan tilin, bestetan pirrin
tirripititin.

GAUR TXANTXO NAIZ

Gaur txantxo naiz, bihar txantxo
Iñauteri gugan dago
inundikan Tolosarra
ezin bizi jatorrago.

Honegatik egin dezagun dantz
elkarrekin polit
zu gabe bizizen ez dakit,
eta Auserre, pasatzen danean
zuretzako bai!
lan egingo nik lan egingo nik.

INAUTERIETAN ERE...

